

Lesbianak ikusgai eta eskubidedun

Apirilaren 26an, ikusgarritasun lesbikoaren egunean, oraindik ere zaila da ikusgarritasun hori aldarrikatzea pandemiaren testuinguru honetan. Oraindik ere ozen esan behar da lesbianak badaudela eta harro egoteko arrazoi asko daudela, sareak eta beste bide batzuk erabiliko ditugu ahotsa altxatzeko.

Oraindik ere, lesbianak ikusezinak dira gure jendarteko hainbat esparrutan; esaterako: eskolan, familian, lanean, kalean... Eta zer esanik ez lesbiana nagusiak, migratuak edo asilo-eskatzailleak direnean.

Ikusezintasuna beste indarkeria mota bat da, emakumeei sexualitate aske eta autonomia ukatzen jarraitzen duen gizarte patriarkal batean txertatua. Hainbeste emakume lesbiana existentziarik ezera edo ikusezintasunera kondenatzea da sistemak baliatzen duen mekanismoa, gizartean sexu- eta genero-aniztasuna ukatzen jarraitzeko.

Gizarte osoaren erantzukizuna da diskriminazio eta indarkeria mota guztien aurka borrokatzea. Lesbianen ikusgaitasuna sustatzen duten politika publikoak beharrezkoak dira, eta, nagusiki maskulinoa den LGTBI+ imajinariotik haratago doazenak.

Egun honetan, lesbiana horiek guztiak aldarrikatu nahi ditugu, ikusarazten direnak eta ez direnak. Gure helburua emakume lesbianek euren ikusgaitasuna nola bizi nahi duten askatasunez erabaki ahal izatea da eta, horretarako, baldintza egokiak sortzen jarraitzeko egingo dugu lan. Era berean, dei egin nahi diegu pertsona, elkarte, kolektibo, erakunde eta organismo guztiei, jendarte osoari, eurek ere lanean jarrai dezaten.